

## AGENDA @ Irrati-Telebista

ekografiak @ FERMIN ETXEGOIEN

## Cantabric Txirlo Channel (CTC)

Bizitzan bezala, telebistan ere dena ez dago asmatua, baina telebista-kate estatalak lehenago esistitzen dira beste-lako telebista-kateak baino, eta horregatik handien atzetik ibili ohi dira gurea bezalako telebista-kate txikiagoak, gerora sortuak dakigun bezala, eta adibide bila nabilela Kantabriako telebista erregionala etorri zait gogora berehala, egun beteko programazioa inolaz ere ez daukan telebista baina bai egunean zehar tarteka emititu ohi duena, nahiz aitortu behar Kantabriara adibide bila egin du-

dala, baita ere, bertan badelako kirol jakin bat, esan gabe doa, bertakoa soilik ez dena, noski, baina bai Kantabriako kirol nazionaltat lasai asko jo daitekeena, eta ondorioz hango telebista txiki horrek hizkuntza telebisibo oso bat asmatu behar izan du, Kantabriako kirol nazionala behar bezala zuzenean emititu ahal izateko, printzipioz hango herri txikietan dauden bola-tokiak bat ere aproposak izan ez arren telebista emankizunetarako, eta horregatik beste inongo telebista asmatu ez dituen formula audio-bisualak asmatuko zituen, seguruenik, Kantabriako telebista txikiak, bolo-partidak behar bezala erretasmititu ahal izateko, jokaldi anitzak gertatu ohi direlako Kantabriako bolo-partida gehienetan, eta jokalaririk abilenak baino ez dira gauza izaten jokaldi zailenak burutzeko, baita gu be-

zalako bidaiari arrotzak harritzeko ere, gurean болоak baditugun arren Kantabriako kirol beteagoa baita, eta menturaz baita kirol zeltiarra ere, Biarnoko herrietan bola-toki tradizionalik aurkitzea ezinezkoa den legez, baina bai bola-toki moderno horietarikoak, ordea, euskal eskiatzaileez mukuratu egon ohi den Bigorako Luz herrikoa bezala, gaur bertan seguru euskaldunetz beterik egongo dena, eta ordea Cordillera Cantábrica ez dugu ia inon frontoirik aurkituko, baina bola-toki tradizionalak bai aurkituko ditugu Burgoseko iparraldean, Asturias osoan eta Llionen ere, nahiz Vega de Liébana herrian dauden bola-toki txiki eta homerikoak izan ohi dudana nik go-goan beti, Kantabriako telebistari buruz berbetan hasiz gero.

## INTERNET

## Euskaraz.tv sareko telebistak 120.000 bisita izan ditu urtebetean

Hauteskundeen ondoren, pertsona ezagunei elkarrizketak egiten hasiko dira

URTZI URKIZU - DONOSTIA

Urtebete egin zuen atzo Euskaraz.tv-k, internet bidezko lehenengo euskarazko telebistak. Bizkaiko Proyeccion enpresak kudeatzen du webgune hori, eta gaztelaniazko katearen sorreraren ondotik iritsi zen euskarazkoa.

Iban Ortega eta Estibaliz Arzuaga kazetariak lantzen dituzte euskarazko telebistaren edukia. Gerardo Fernandez, berriz, Proyeccion.tv eta Euskaraz.tv kateen koordinatzaile eta zuzendaria da. «Lehen urtean, Euskaraz.tv proiektua egonkortzen saiatu gara. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak izan ditugu», dio Fernandezek.

Euskaraz.tv sareko telebistak 150 prentsaurreko, 50 hitzaldi eta 35 kultur ekitaldi grabatu ditu eta osorik jarri ditu gunean. Egunean 400 bisita inguru jasozten ditu guneak eta urte osoan 120.000 izan dira Euskaraz.tv-n sartu direnak. 925 harpidedun ditu une honetan webguneak.

Datu horiek kontuan hartuta, Euskaraz.tv-ko zuzendariak balantze ona egiten du proiektuaren lehen urteaz. «Kontutan hartu behar dugu euskaraz ari garela eta merkatu potentziala gaztelaniazkoarena baino askoz txikiagoa da. Bestetik, nabaritzen dugu desorekak eta zailtasunak daudela euskaraz eta teknologia berriak kontzeptuek bat egiterakoan», dio Fernandezek. «Euskaraz.tv-rena, gainera, kasu berezia da. Bideoak jaitzi



ESTIBALIZ ARZUAGA, Iban Ortega eta Gerardo Fernandez Euskaraz.tv telebistako arduradunak. PROYECCION TV

arte itxaron behar da eta ondoren bideoa ikusi. Horrenbestez, urtebetean internatuek 15.000 ordu ikusi izana datu aparta da».

## Bideoak ikusteko modu erraza

Hedabide bezala funtzionatzeaz gain, ikus-entzunezko atariak egiten ari dira Proyeccion enpresan beste webgune batzuentzat. Adibidez, Euskaltzaindirako eta Gipuzkoako Foru Aldundirako ikus-entzunezko atariak egin dituzte. Era berean, Euskaraz.tv-k grabatutako hainbat bideo beste erakunde batzuek erabiltzen dituzte.

Telebista ikusteko [www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv) helbidean sartu behar da. Ordenagailuak Real Video pro-

grama badu erabiltzaileak bideoak ikusteko aukera izango du zuzenean. Hala ez bada, webguneetik jaitsi daiteke programa hori.

Telebistaren zuzendariak dio Euskaraz.tv-k ez duela inolako ideologiarik. «Eduki transmisore bezala gure ezaugarria da prentsaurrekoak eta hitzaldiak osorik emititzen ditugula, editairik eta manipulaziorik gabe. Bestetik, gure bokazioa enpresa txiki batena da eta ez du komunikazio talderik atzean».

Barne ekoizpeneko edukia lantzen ere hasiko dira aurki; apirilaren 17ko hauteskundeen ondoren pertsonaia ezagunak elkarrizketatu dituzte. Gipuzkoako ekitaldiertara gehiago iristeko asmoa azaldu dute.

## esanak

## GERARDO FERNANDEZ

(Euskaraz.tv-ko zuzendaria)

«Desorekak eta zailtasunak daude euskararen eta teknologia berrien artean»

«Prentsaurrekoak eta hitzaldiak osorik emititzen ditugu, editairik eta manipulaziorik gabe»

## kirol betekada

Gaur  
TXIRRINDULARITZA  
Setmana Catalanaren bosgarren etapa.  
La2 16:45

Gaur  
ESKIA  
Pierra Mentari buruzko erreportaiak.  
ETB1 18:30

Gaur  
PILOTA  
Eskuz binakako bi partida: Saralegi-Medina / Leiza-Rai. Ondoren, Unanue-Beloki / Asier Olaizola-Zearra.  
ETB1 22:15/23:15

Bihar  
TXIRRINDULARITZA  
Nazioarteko Kriteriumaren 1. etapa.  
France2/La2 16:30

Bihar  
MOTOKROSA  
Araba Free Style jauzi ikuskitzuna.  
ETB1 17:00

Bihar  
FUTBOLA  
Bigarren Mailako partida: Terrassa-Alaves.  
ETB1 18:30

Bihar  
FUTBOLA  
2006ko Munduko Koparako sailkapen kanporaketak: Frantzia-Suiza.  
TF1 20:55

Ezti  
HERRI KIROLAK  
Urrezko Aizkora. Banakako txapelketa.  
ETB1 12:30/16:00

Ezti  
TXIRRINDULARITZA  
Pistako Munduko Txapelketa Los Angelesetik.  
France3/La2 15:10/15:30

Ezti  
PILOTA  
Titin III.a-Goñi III.a / Del Rey-Pascual.  
ETB1 18:15